

## NEGUKO ARRATSETAN SU ONDOAN KONTU-KONTARI.

ZEAMAKO IZKEAN PASAIZO BAT.

### BAKOITZE.

Ezkion da eche bat Echaluze deitzen dioena, eche ontan bizi zan (bada makiñat urte) izenez Mañolo eta izengaitzoz *Bakoitze* zeitzona, jale erruzue eta edale berdiñik etzona.

Licharrero samarra zaneko pamea zon, eta zerbait errin paltatzen zanen, ondo eo gaizki, oni egotzi oi zioen.

Oiturea zan Ezkion, Urte-berri eunen, irtetzen zien Alkate eta errejidorek eta sartzen zien berrik apari on bat eitea. Argindeiko<sup>1</sup> echeko-andrek maneatzten zon apari au, eta bezperan Pillaprankatik ekartzen zitun gaiek. Pasaizo au gertau zan urten ekarri zon beste gauza askon arten cherri-solomo eder bar guchinaz dozena bat lirba pisauko zitune. Asteazkena zan eun ura eta peritik echea etor zanen, ipiñi zon preskuran be gelako leion cherri-solomoa. Urrengo goizen eune zabaldu baño lenao sartu zan *Bakoitze* Argindegin kopa bat agurdinte napar eatea, eta illargi ederrak argi eiñez ekusi zon leion zeon jakie; eta nola deabrue iñoiz lo eztaon, eman zion gogora, arrapau bear zola chinchiliška zeon solomoa, esanaz be arten: baldin errejidorek, errin kontura jan ta eran badezake, nik-e, uste dot, orik aña eskubide badeala erriko gauzata, eta solomo ori jan da ez doe beintzet tripamiñik izango, ezta nik-e onekin kontzientzik kargauko.

(1) La posadera de la Casa Consistorial.

Eta geiagoko bae artu zon aga luze bat ehetik eta baita-re solomo ederra chamarrota-pera

Kontuatu zanen Argindeiko eheko andrea solomoa palta zola, esan zion alkateri, eta onek bialdu zion amabie<sup>1</sup> errotore jaunei, esanaz ze gertau zan eta erregutuz predikau zezala mezatan lapurreten gañen.

Errotore igo zan ba pulpitoa eta asi zan esanaz: Ne Kristau maitek: Jainkon leeko zazpigarren ain̄tek bakizue esaten dola «ez ostutzea»; beste eozeiñ pekatu, egizko damutasunekin, ez geigo eiteko asmo sendokin eta konpesoren asoluziokin barkatzen da, baña lapurretea ez da barkatzen arrapau dan gauzea jaberri itzuli bae. Bart, Argindeiko ehetik arrapau dioe solomo galant bat; ia ba ne kristauek: uste det aragi, jaki eo solomo bateatik zuetako iñork inpernura jun naiko eztola, ba, emen ez dao beste erremedioik, eo *errestituzioa* eo *kondenazioa* San Austiñek dion bezela.

Bakoitzek baki solomoa berea ez dola, biurtu beza ba; ala, barkauko zaio mundu ontan be pekatue eta izango do besten betiko glorie. Amen.

Elizan zerenak, itz ok aitu zituenen beirau zioen *Bakoitze* gizajori, zein zeon anpola gorrie baño gorriko; etea zon ba chamarrota-petik be solomoa eta tirau zon esanaz: prochun deizuele, eta irten zan elizatik eta ez zan *Bakoitzen* aztarrenik Ezkion izan urte askotan, aliketa gertaizo au ondo aztu zan arteaño.

EZKIOKO-ZEAMARRAK.



(1) Alguacil.